

TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

2002ko martia - 35. zenbakia

**Abesbatza
Versallesen**

**Nikolasegaz
berbetan**



ESKERRIK ASKO

Euren borondatez, Txirritxolaren banaketa lana egiten daben gazte guztiei, mila esker.

Eta eskerrik asko euren idazkiakaz lagundu deuskuen guzti-guztiei.

Hurrengo zenbakian, barriro beharko dogu danon laguntzinoa. Erredazkino lanetan parte hartzeko prest zagozen guztiok, etorri zaitezze Kultur Etxera.

Argitaratzailea: Bakioko Euskera Zerbitzua, Bakioko Kultur Etxea, Urkitzaur 28, 48130 Bakio, Tel: 94 619 33 69, Faxa: 94 619 31 18. **Erredakzinoa:** Joseba Terreros, Unai Beitia, Gorane Oleaga eta Iniaki Martiartu. **Laguntzaileak:** Anartz Ormaza, Karmele Uriarte, Inés Baraizarra, Maria Santisteban, Juan Carlos Uriarte, Bakioko Abesbatza. **Argazkilariak:** Aitor Ibarrondo. **Irarkolea:** GRAFILUR. **Ale kopurua:** 1.000. TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako- en esanik zein eritxirik beraren gan hartuten,artikulu egileak baino.


TXIRRITXOLA

BAKIOKO EUSKAL ALDIZKARIA

Hiruhilabetekaria - 2002ko martia

35

Zer-Non	3
Berbetan: Killminister	4
Euskerea bizirik	6
Baserria: Udalgene (Goitisolu)	8
Bitxikeriak	10
Bestelako gaiak	12
"Mahasti Alde"	14
Barri laburrak	15
Herri barriak	16
Gure artean: Nikolas Uriagereka Lasa	19
Marta Txori	20
Marta Txori Andra Alkartea	21
Bakioko Abesbatza Versallesen	22
Gabonetako Jaiotza	23
Gabonetako ipuin lehiaketa	24
Olentzero	25
Soinu eta Pandero Joleen eguna	28
Guraso eta umeak kontu kontari	29
Liburuak	30
Sukaldaritza eta Barregaiak	31
Bakioko euskerea XIII	32
Ezetz jakin	34



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

Killminster taldeagaz berbetan

Oraingo honetan Bakioko gazte talde gogor bat alkarrizketatu dogu. Horretara, gazte batzuk be zeozer egiten dabela ikusiko dau herriak. Kasu honetan indartsu datorren musika talde bat da Bakion daukaguna, eta horren izena, "KILLMINISTER". Taldearen partaide, hiru mutil, Etor Duoandikoetxea (ahotsa eta gitarra), Arnaldo Larrazabal (bateria) eta Iraultza Bilbao (baxua). Ahor dozuez, ba, euren eritxi eta asmoak.



TXIRRITXOLA: Hasteko, nondik nora izen hori?

KILLMINISTER: Ba, "Mötörhead" taldeko partaide dan Lemmy Killminster rockaren mito bat da, eta beraren abizenaren aldaketatxu bat baino ez da gure izena. Gure maketa barrian be beraren argazki bat jarri dogu.

TX: Ze musika estilo jorratzen dozue?

K: Gure musika tipoa, rock azkarra eta "zikiñe" dala esango geunke, "Mötörhead" baino arean suabeagoa. Rock n'roll "a ojo", apur bat primitiboa. "New-bomb-turks" eta "Supersukers" taldeen estiloaren inguruan dabil gure eredia. Osterantzean, "Turbo negro", "Ramonés" eta "Discípulos de Dionisios" en bertsinok be jotzen doguz.

TX: "Galipot" izan zana gaz antzekorik bai?


K: Ez, ez dauka zerikusirik. Orain gitarra be hobeto jotzen dogu, abilezia handiagoa daukagu eta.

TX: Ordu asko sartzen dozuez? Zergaitik abesten dozue ingelesez?

K: Topera gabiltzazenean lau bost entsaio egiten doguz astero, gero igual hilabete pasatu arren oporraldian. Ingelesez abesten dogu gustatzen jakulako hizkuntza horretan abestea eta askatasun gehiago emoten deuskulako gura doguzanak esateko arazo barik.

TX: Orain ze proiektu daukazue eskuartean?, maketa bat atara dozuela esan deuskue.

K: Bai. Abenduan egon gintzezan Bermeon grabake-



tak egiten. Egun bi emon genduzan grabaketa estudioan sartuta, hoguei ordu inguru. Toma pilo bat egin behar izaten dira eta ganera estudioan egoan batera ez zan oso ona, eta zarata ona atarateko Arnalek goiz erdia emon behar izan eban berotuten. Ganera, ahal danik eta merkeen egin behar dogu ze ez daukagu aurrekontu handirik. Etorrek egingo deutsoz moldaketatxu batzuk ordenagailu bidez eta kopiak be geuk egingo doguz. Gero, gure asmoa da, tabernetan zabaltzea eta ia kontzerturen batzuk urte-ten badeuskue. Baina, geure ustez, lan bikainak urten dau, arazoak arteztu eta gero.

TX: Orduan, orain kontzertuen begira zagoze?

K: Bueno, bai, laster diskoaren aurkezpena egin gura dogu, ganera, zezeilean urtebete egiten dogu talde moduan eta hori be ospatu beharko da. Orain talde onak etorten dira Ameriketatik eta ea sartzen bagaitue nonon telonero lez-edo; hori be, beste aukera bat da.

TX: Zelan ikusten dozue musikearen merkatua?

K: Txarto. Ez dago afizinerik. Era honetako musika kontzertuetara ez da joaten jende askorik. Beti ikusten dozu jende bardina kontzertuetan. Behinola, "Dictators" talde ospetsua etorri zanean kontzertuan ez zan hainbeste jende egon, ez behintzat maila horretako talde batek merezi dauan beste. "Hard-core" eta antzeko estiloak entzuten dira orain gehien. Ganera, jendeak gurago dau bost mila pezeta ordaindu futbol partidu bat ikusteko, bi mila pezeta kontzertu bat entzuteko baino.

TX: Aurrerantzerako ze proiektu daukazue?

K: Bueno, "Villa de Bilbao" maketa lehiaketara aurkeztu gara eta Ondarroako lehiaketa batera be bai. Azken honetan, ganera, sarietako batean kontzertu batzuetan joteko aukerea emoten deusue. Eta horreek dira gure proiektuak, apurka-apurka dirua batzen jarraitu taldean sartzeko, ekipoak hobetu, kontzertuak lortu,...

**Jainkoak gizonari
hamar hatz,
beharrerako aberats.**

**Nagia,
beti behartsu.**

**Behar lasterra,
behar alperra.**

**Nagiaren urak
tenple bi,
batzuetan hotzegi,
besteetan beroegi.**

EUSKERE BIZIRIK

Zemendiaren 10ean, belu baina gogotsu ospatu zan Euskerearen XVI. Jaitxua Bakion.

Urteak eta urteak daroaguz euskerearen etorkizuna, geure hizkuntzearen geroa bermatu gurean, eta oraingoan esan beharra dago Bakion behintzat aurrerantza goazela. Horretarako ikustea baino ez dago gazteek, ez hain gazteek, helduek eta ume-umeek zelan hornitu eta egokitu eben eguna. Ezin dogu aitatu barik itzi inor, danori esker egin zan-eta gure ekitaldia:

Txistulariak fin-fin,
soinulariak faran-faran,
dantzari profesionalak tente hor,
"amateur"ak bere nahiko baikor,
sukaldariak gazi-gazan kilin-kolon,
kamareruak "hartu eta jan bizkor",
abesbatzako txiki-gazteak urretxindorren parean
doi-doi.



Eta hori guztiori euskerearenganako maitasuna adierazoten eben apaingarri txukun eta koloretsuen artean.

Ez zan falta izan kanpoko laguntzarik be. Hortxe izan genduzan aizkolariak, Guillermo Segurola txiste-kontalaria eta Urgabe musika taldea.



Nork dino Bakion ez dagoala zer eginik? Egon dago eta egongo da urte askotan.

ZAHAR, GAZTE
ETA UME DANOK
EUSKEREAREN
ALDE!

Euskera
Batzordea.

ZEOZER GEHIAGO!

Txominen taberna, taberna bat baino zeozer gehiago izan ete dan gagoz. 2001eko abenduaren 28an, Txomin tabernak, 33 urte igaro ostean, bere ateak itxi dauz; baina tabernan emoten zan zerbitzuaz aparte, beste zeozer edo beste zeregin batzuk be betetzen ebazan, beste batzuen artean edo behintzat "pelota" munduan gabiltzanok, batez be, Alaitasuna pelota taldekoak, hasi gara igartzen. Kontuan hartu behar dogu edozein kultur edo kirol taldek bere betebeharrak bideratzeko, zuzentzeko edo alkarren aurrean proposamenak aurkezteko toki bat behar izaten dauan moduan, gu be, horren beharrean gagoz, eta jakina, Txomin taberna izan da gure lan txokoa.

Kontuak kontu, nostalgia, malenkolia hori edo dana dala alde batera itzita galdera batek inguratzen gaitu...eta orain zer?

Gaur egun (idazkitxu hau idazten gabiltzanean 4 daukaz hilabeteak) moldatzen goazela emoten dauan arren, lana biderkatu eta era berean gatxagotu egin jaku. Guraso, ume pelotari eta arduradunen arteko koordinazioa ez da hain erraz egiten orain; horregaitik, Txominenean jarraitzen dogun arren (izan daitela luzaroan, ze hurbiltasunagaitik ez dago leku hobarik), noz arte ez jakiteak urduritasun xume batean murgiltzen gaitu. Udaletxeak, bere aldetik, aurreratu euskun epe laburrean beste irudi bat emon behar eutsola Txomin tabernako eraikuntzeari eta bitartean ahaleginak egingo ebazala beste lekutxuren bat topatu gurean. Ea guztion borondatez sortutako arazoari aurre egiten deusegun eta gogoia amatazen ez itzi.

Bakion, 2002ko zezeilaren 4an.
Alaitasuna Pelota Taldea
Juan Carlos Uriarte

ERITXIEN GAINEKO OHARRA

Txirritxolara bialduko diran eritxiek, egilearen izena eta telefonoa euki behar dabe. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz.

Ez dogu iraingarritzat jo leiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.

JAGON DAIGUN BAKIO

Gure herriak badaukaz inguru polit-politak. Horreerako bat dogu **Oiaga** (Oidxa) izenekoa. **Oiaga** deritxon inguruak lur saila asko daukaz, gehienak jaubedunak dira. Beste batzuk, ostera, herriarenak dira, esaterako, **Oiaga-errekea** (Oidxa-errekie), **Mendialdeko** bidea, harrobia (Kantarie) eta itsasoaren artean dagozanak. Lur saila horreerako gorengo lekuan, itsasoari begira, **Oiagako Kurutzea** (Oidxako Kurtzie) dago.

Inguru hori lohi, sastarrez beteta, bertan behera itzita edota erdi galduta dago gaur egun. Hara joaten dira motordunak motorren ganean hara-honaka ibiltzen eta, bide batez, gurata edo gureztala, lotuten dan lur eta bedar apurra laskituten, hatxak agiri-agirian izten dabezala. Hara joaten dira, udan batez be, astegoienetan edo haretza egunetan turistak jaten, euren mahaiak, jesarlekuak eta infernua atarata, bazterrak hondakinez beteta izteko. Han agertuten dira be, lantzean behinean, txapelokarren Land-Roverrak, oinezkoen ezusterako. Egon be, barrura sartuteko halan-galan sasi-bidea eginda dago eta. Nonork be, ostuka edo, etxeko hondakinak han botaten izan dauz.

Oiaga deritxon tokiari deuseola dagoz **Atxuloko** hatxak. Hatxotara arrantzan joaten dira batzuk. Honeek be hobeak ez dira, ze hatxetan ikusten dira eurek itzitako latak, plastikoak, paperak, amu zaharrak, arrantzarako hari zatiak, ... Eta hau gitxi balitz legez, kainaberak eusteko behearen ganean zuloak egiten dabez, behe guztiz hondatuta izten dabela. Hareexek hatxak be negargarri dagoz.

Ganera, inguru biotara parajetuten diran asko, oinez joan beharrean, kotxe eta guzti joaten dira, **Mendialdeko** bidearen alboak aparkaleku eginda egoten dirala.

Nire eritxi apalean, inguru ha jagon egin behar da. Horretarako neurriak hartu behar dira. Uste dot, ganera, Udalak hartu behar dauzala neurriak, leku eder hori lehengora ekarteko. Nik neuk neure aldetik honangoxeak ekarri dodaz hona zeuen aurrera:

1.- Uren araztegitik hasita **Urizarreta** etxegino bidea trafikoari itxi. Bertako baserri edo etxeetan bizi, hango solo eta basoetan behar egiten joaten diranai zein larrialdietarako izan ezik.

2.- Goian aitutatuko **Oiaga** inguruak konpondu, garbitu eta polito atondu edo apaindu. Hau da, han botatako porlana kendu, sastarrak batu, lur ona ekarri, bedarra erain eta jagon, jesarleku eta sastarrontziak imini,...

3.- **Atxuloko** hatxak garbitu eta inguruak konpondu, lehengoa lez, polito atondu.

4.- Jakina! Han inguruan aparkatutea, ibilgailuagaz ibiltea, mahaiak-eta imintea, suak biztutea, sastarrak behearen ganera botatea, eta abar... galazon beharko litzakez.

Hauze da, bada, idazkitxu honen bidez Udalarari heldu eragin gura deuseodan errege-eskabidea. Halan egin ezkeron, inguru ha urte askotarako eukiko dogu, danon gozamenerako. Izan be, biotopoa jagoteko lurraldea bertan ondoan daukagu eta **Oiaga-Atxulo** inguruak haren aurrealde ondo be ondo izan leiteke. Zeuen eskuetan, alkate-zinegotziok!

UDELGENE (GOITISOLO)



Izatez baserri hau Goitisoloko izenagaz ezagutzen badugu be, eta eskritoretan holan agertzen ei bada be, UGELDENE dauka berezko izena. Izatez, GOITISOLOAK hiru dira: Goitisoloko, Gatikene eta Ugeldene. Hortaz, nahiz eta GOITISOLO moduan ezagutu, auzoan UGELDENE legez da ezaguna. Antxina hirurak jaube bardenenak ei baziren be, gero bakotxa banan saldu zan. XVIII. mende hasieran, Ciudad Realeko Dukearena genduzan GOITISOLOAK, Basarteko Marttin bizi zala bertan. Mende erdialdean, honen seme zan Baupista Basartekoa bizi zan bertan, Joseph Ynsaustigaz, seguruen bakotxa banan. Eta beti egon da alogeran, Duke eta Markesen jaubetzapean, orain 55 urte Alejo Markaidak eta Isabel Jauregizarrek erosi eben arte. Izatez, Isabel zan bertokoa, eta arterago bereran aita Frantzisko Jauregizar bizi izan zan bertan. Berez familiaren jaubetza Uribe baserria bazan be (hemendik egungo Jauregizartarrak Uriben), Ugeldenen bizi ziran alogeran, hau be erosi eben arte.

Frantzisko Jauregizarrek 9 urte eukazala, orain 150 urte inguru, GOITISOLOAK erre egin ziran, hirurak. Goitisoloko eta UGELDENE oso hondatuta geratu ziran, eta Gatikene ez hainbeste. Hau dala eta, kaltetuenak barriztu egin ziran. Goitisoloko guztiz aldatu zan, eta errepideari begira berregin zan. Ugeldene be, nahiz eta norabidez aldatu ez, handitu egin zan. Gatikene be, horretan itzi zan; horregaitik, oraintxu barriztu zan arte, Gatikene beste biak baino asko be zahartuago egoan, bere sasoian barriztu ez zalako.

Aitatutako Frantzisko Jauregizar, Meñakako Agedagaz ezkondu zan, eta honeen alabea, Isabel Jauregizar, Alejo Markaidagaz (honeek erosi eben baserria). Seme-alaba bi euki ebezan, Kristi eta Patxi, guztiok ezagunak eta bertokobertokoa.

Anartz Ormaza

ERAKUSKETAK

Pasa dan hilabetean, aspalditik hona izandako erakusketarik politenatarikoa egon da ikusgai Kultur Etxeko Erakustaretoan. Jokin Mitxelena izan da egilea, eta erakusketea, gazte eta umeen liburuetan agertzen diran marrazki polita eta biziek osatu dabe.

Hementxe daukazue euretariko bat.

Eta hurrengo hilabeteetarako:

Martian, Miren Bilbaoren lanak.

Apirilean, Fernando Villena eta Julio Martin.

Maiatzaren 2tik 16ra arte, M^a Angeles Castelloren orio pinturak.

Maiatzaren 18tik aurrera, Kale Pinturako Lehiaketaren partaideak.



TXOBERNE

Berton-bertokoa gozatuteko leku aproposa

Bakioko txakolina, sagardoa eta jateko giro ezin hobekoan.

Tfno. zkia.: 94 619 41 81

ZUHUR IBILI

MAILA HONEEK PELOTALEKUAREN ONDOTIK GORA JOATEKO DIRA.
BADAKIZU ZELAN ESATEN JAKEN MAILA HONEEI?

Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera.

Epea martiaren 15ean amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia.

Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

**Afari eder bat
Txoberne Tabernan**

2002ko martia

zuhur ibili



Bitxikiak

TELEFONOARI ERANTZUN EDO AUTOA GIDATU

Sakelako telefonoek gidaria nahastu egiten dabe, distraitu. Albiste hori ez da barria, begi-bistakoa da eta. Dana dala, Carnegie Mellon Unibertsitateko zientzialariek horren arrazoi zientifikoa topatu gura izan dabe. Antza danez, garunak aldi berean eginbehar kognitibo bi egiteko daukan gaitasuna mugatua da, batez be atentzino handia behar daben egoeretan. Ikerketea egiteko, garunaren aktibitatea islatzen daben irudiak erabili dabez. Boluntarioak ikusmen-prozesu konplexuko lan bat egiten ipini ebezan, eta, beharrea egozala, hainbat esaldi erantzun eragin eutsiezan.

Lortutako emoitzen arabera, esaldiak entzunkeran boluntarioen atentzino-maila %29 jaitsi zan. Beraz, arazoa ez da esku libreen aukereagaz kopontzen, gidatzeko, eskuez ganera, garunaren aktibitatea be behar da eta. Ganera, gidatzeak arreta handia behar dau, eta berba egiteak garun-eremuaren %53ri eragiten deuto. Horregaitik, zientzialariek gidatzen gabiltzanean, al bait gitxien berba egiteko be gomendatzen dabe.

DEPRESINOARI AURRE EGITEKO EZ DAGO KIROLA BAINO HOBERIK

Kirola egitea depresinoari aurre egiteko ona dala aspaldidanik esaten da, baina orain arte ez da jakin zergaitik. Bristish Journal of Sports Medecine-k argitaratu dauan artikulu baten arabera, kirola egin ostean ekoizten dan depresino-contrako substantzia feniletilamina da.

Ikerketak erakutsi dauanez, kirola egin ostean, gorputzean azido fenilazetikoak %77 igoten dau. Substantzia hori anfetaminaren antzekoa da eta depresinoaren aurkako propietateak daukaz.



STEPHEN HAWKING: "ADIMEN ARTIFIZIALAK GIZAKIA GAINDITZEA GURA EZ BADOGU, GURE ADN A HOBETU BEHARRA DAGO"

Stephen Hawking fisikari britainiar ezaguna arduratuta ei dabil, adimen artifiziala gizakiaren adimena gaudituta eta mundua kontrolatzera heldu daitekela uste daualako. Orain dala gitxi, gai horren inguruko kezak azaldu ebezan, Alemaniako Focus aldizkarian argitaraturiko alkarrizketa baten. Hawkingen eritxiz, ingeniarritza genetikoak erabili behar da ADN a hobetu eta gizaki bizkorrago eta argiagoko sortzeko.

Hamazortzi hilabete igarota, gitxi gorabehera, ordenagailuen ahalmena bikoizten da; gizakienak, osterak, ez dauka horrelako hobekuntzarik eukiten. Horregaitik, egunen batean teknologia gizakia gauditutera heldu daitekela dino fisikariak. Hori saihesteko, garunaren eta ordenagailuen arteko konexino zuzena ahalbideratuko daben teknologiak garatu behar dirala usten dau, adimen artifizialak giza adimenari lagundu deion, eta ez aldrebes. Loak kentzeko moduko barria.

ERRIAK

5 URTEAN INTERNET SAREA GAINDITUTA

Internet sarearen egiteua sortu ebenean, 4,3 mila milioiko konexinorako gaitasuna beharko zala aurreikusi eben. Gaur egun daborduko horreen erdiak erabilten dira eta eskariak ia modu esponontzialean hazten dihardu. Beraz, dirutza izugarria erabili ezean, sarearen gaitasuna gaindituta egongo da bost urtean.

Kontuan izan behar da, domotika abian ipini eta arrunt bihurtzen bada, etxeko tresna askok Interneterako loturea eukiko dabela. Sakelako telefonoakaz be Internetera sartu daiteke, eta aurrerantzean erabilera-mota hori ugarituko dala itxaron behar da. Beraz, itauna hauxe da: ea IP helbideak noz amaituko diran.

Eta ostean, zer? Aukeretako bat sistema paraleloa sortzea litzateke, sistema bien arteko loturea eukiteko moduan. Baina horrek gaur egun erabilten diran hardwarea eta softwarea aldatzea ekarriko leuke, eta hori ihegazkin bateri hegaz dabilenean hegoak aldatzea bezain gatzai litzatekela dinoe.



AUTOBUS AUTOMATIKOA

2003. urtean Herbehereetako Eindhoven urian kontrol automatikoa daukan autobus esperimentala estreinatuko dabe. 24 metro luze dan autobusa uri horretako Teknologia Unibertsitatean diseinatu dabe. Ibilbideari jarraitzeko, asfaltoan jarriko diran erreferentzia magnetikoak erabiliko dauz. Autobusaren barruko hainbat sentsorek eremu magnetikoa erregistratuko dabe, eta, informazio horregaz, imanaren eta sentsore bakoitzaren arteko distantzia neurtuko dabe. Autobusak alde zurretik ezarritako bide estu bateri jarraituko deutso, eta errebueltak agindurik emon barik hartuko dauz. Geltokietan be modu automatikoan geldituko da. Beraz, gidariak abiadura kontrolatu eta bidaia gainbegiratu besterik ez dau egin beharko. Motor elektrikoa eukiko dau, eta bateria bereziak erabiliko dauz. Konexino elektrikorik eta trenbiderik behar ez dauenez, autobusaren ekoizpen kostuak nahiko txikiak izango dira.

OHARRA!

**TXIRRITXOLA ETXERA HELTZEN EZ BAJATZU, ZATOZ ARRATSALDEZ
KULTUR ETXERA, ZURE HELBIDEA EMOTEN.
OSTERANTZEAN, BADA KIZU TXIRRITXOLA HERRIKO TABERNETAN, TURIS-
MO BULEGOAN EDOTA KULTUR ETXEAN ESKU-ESKURA DAUKAZUNA.**

Urdaibaiko parke natur



Orain dala urtebete Bilboko udaletxearen parean egoan Chimbito III.a ontzi famatua Urbaibaiko ingurua ezagutarazoteko erabilten dabe orain Edorta eta Ander Jimenez mundakarrak. Bata euskal idazle ezaguna dogu eta bestea marinela izanikoa; bata hizlaria eta bestea lemazaina. Itzuliak ordubete inguru irauten dau eta munduko hezegune garrantzitsuenetako bat ezagutzeko aukerea ezin hobea da.



Ozta-ozta heldu gara. Arratsaldeko 5:30ak pasa dira eta Mundakako kaien motorrak piztuta daukaz Urdaibaiko Erregina ontziak. Edorta Jimenezen barkua? Ez?... Ze arraio, zein izango da, ba? Itaundutakoak: Hau Anderren barkua da, txo! bota arte. Sartu gara. Ander Jimenez dogu bera. Segiduan igon dau Edorta eta anaiari amarrakaz laguntzen hasi jako, Mundakako kaitik urten dogu orduan.

Atzeko alderdian -parkatu popan- dozena bat lagun goaz, eta Edortaren lehenengo berbak Laidara joan behar dogula esateko dira, hor beste horrenbeste lagun daukaguz begira. Barrura sartu garanean, kristaleko kartela-

ri erreparatu deusagu: "ezagutu Urdaibai basatia". Hizlariak bere ohiko tonuaz, ironiezt, dinoan lez, 80etik aurrera betiko Mundakako ibaia Gernikakoa izatera pasazan: "Gernikak izen ponpoxoagoa dauka. Baina teoria horren arabera, Tamesisek Londres izena euki beharko leuke". Besteak beste madrildarrak, katalanak eta Busturia aldekoak datoz bisitari; azken horreek, bada, -ala, ala, ala!- egiten deutsoe errieta: "eta zergaitik ez Busturiako ibaia? Ba, Bustira ibarra dalako" dinotse.

Estropada baten ostean

Orain dala zazpi urte estropada batentzako balizak ipinten ebilzala burututa jaken Jimeneztarrei txangoak egiteko ontzitzu bat eskuratzea. Halan, merkataritza ontzi baten salbamendurako txalupea erosi eta egin beharreko arotz lanak egin ostean, Urdaibai ingurua erakusteari ekin eutsoen.

Hori txiki geratu, oster, eta Bilboko udalaren parean zetzan Chimbito III.a erosi eben orain dala urtebete. Hogeia lagun baino

1. **Baliatu:** aprobetxatu, erabili.
2. **Lemazain:** patroi, lemari, ontzi-gidaria.
3. **Hezegune:** berdegune, gun e umela.
4. **Afixa:** kartela.
5. **Arotz:** zurgina.
6. **Bitxi:** perla, gauza preziatua.
7. **Birsortu:** berriro sortu.
8. **Iragarpen:** auresan, pronostikoa.
9. **Atsedentoki:** atsed e leku.
10. **Jite:** izaera.

ala ezagutzeko erregina

gehiago sartzen dira orain eta kostalde osoa zeharkatzeko baimenak eskuratutakoan hasiko dira bidaia luzeagoak eskaintzen. Gaur egun egiten dabezan bisitaldiak hiru dira: Urdaibai barrubarrutik, Izaro ugarte eta Ogoño lurmuturra.

Anderrek dinoskunez, bertan eskola bereziak emoten izan dabez eta mota guztietako taldeak euki dabez bidaiari: ikastolak, euskaltegiak, jubilatua, kultur taldeak... bai eta Gernikako Turismo Bulegoaren bitartez ailegatu jakezan pertsonak be. Ez daukie egutegi finkorik, taldeak osatutakoan urtetako eguna ipinten dabe eta kasik bete beharreko baldintza bakarra marea gora izatea da, urtetako beharrezkoa dalako.

Munduko hezegunerik garrantzitsuenetakoa

Urbaibai Euskal Herriko bitxi naturaletako bat da. Erdi-erdian daukan Oka erreka sortu dauzan padurek munduko laugarren hezegunea eratu dabe. Bertako ekosistemak jagoteko izendatu eban Unescok 1984an Biosferaren Erreserba. Eusko Legebiltzarrak ostean, 1989an, onetsi eban Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babes eta Antolamenduari buruzko Legea. Lege horrek berezko estatusa emon beharko leunskio inguru osoari, Jimeneztarrek azaltzen dabenez, baina, badago legearen izen hantustea hanpapatik pasatzen dauanik: udan ikusi daitekezan ur motorrak, kasu baterako. Bertoko ertz bakotzak izakera oso desbardina dauka; bata publikoa da eta bestea pribatua.

Mikroklima berezia

Ingurua atlantikoa baino mediterraneoagoa da. Eguzkia egonda, gertatu leiteke 20 kilometro barrurago zerua estalita egotea. Metereologiako iragarpenak, beraz, ezin dira itsu-itsuan kontuan hartu. Horregaitik, inguruotako eguraldia zein dan jakiteko bertara deitu beharra dago. Horixe da, beharbada, Europako hegazte migratzaileentzako atseentoki eta negua pasatzeko leku garrantzitsua izatearen arrazoia.

Udaibaiko Parke Naturala Omatik Ogoñoiko lurmuturrera doa eta guztira 220 kilometro karratutan zabaltzen da (Bizkai osoaren %10 hartzen dau). Azpimarratzekoa da, aldi berean, erreserbako interes arkeologikoa, bertan hainbat kobazulo eta aztarnategi dagozalako, ezagunena Kortezubiko Santimamiñeko kobazuloa.

Horreezaz ganera, beste hamaika kontu azaldu deuskuez Jimenez anaiek. Arratsaldeko 6.30ak dira, ostera, eta portura itzuli behar dogu. Esan deuskueenez, batzuetan inguruko istorio eta kondairak kontatzen dauz Edortak; gaur ez da izan, hurrengo batean bueltatuko gara.

TELEFONOAK

Txangoei burizko informazio gehiago eskuratzeko jaso telefonoak:

Urdaibai itsasbidaiaik:
656 73 84 94 (Ander)

TURISMO BULEGOAK

GERNIKA: 946 25 58 92

BERMEO: 946 17 91 54

MUNDAKA: 946 17 72 01




Zemendiaren 17an egindako mahats- batze jaiagaz batera, "Mahasti Alde" sortu da Bakioko txakolina bultzatzeko

Bertoko ardaoaren ekoizpenak ospe handia lortu ostean, "Mahasti Alde" alkarteak sortu da txakolin ekoizle ezberdinen, establezimendu eta jatetxeetako hainbat arduradun eta txakolin zale batzuen eskutik. Irabazteko asmorik bako alkarteak da eta beraren helburua ardao gazte, fruta-gustuko eta bizi honen irudia sustatzea da. Zemendiaren 14an aurkeztu zuten alkarteak Gorrondonan; parte-hartzaileen artean Asier Arzalluz Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Erreguladorearen burua, Joseba Escribano Aldundiko Turismo zuzendaria eta jatorri deiturera dauken Bakioko hiru ekoizleak egon ziran.




Halandaze, zemendiaren 17an mahats-batzearen jaiak egin zuten, antzinako modura: txakolina pisatu egin zuten, uriburuko jatetxe ospetsu-
netatik etorritako merkatariei saltzeko. Bukoia (600 litroko upela) uztarri batez tiratutako gurdian eroan zuten udal balantzaragino. Han pisaketa ofiziala egin zuten eta horren ostean, pabilioira eroan zuten; pabilioian txakolina dastatu eta bukoia enkante publikoa egin zuten. Enkante gogor baten ostean, Loiuako Errota talde gastronomikoaren jaubea dan José Luis Bilbaok eskuratu ebazan sei ehun litro txakolin horreek.

Ekitaldiagaz batera, kalidadezko produktu batzuk be erakutsi, dastatu eta saldu ziran. Txakolin zuri, oilar begi eta gorriagaz batera, Delicass-en foi, magret eta pernila, Salica-ren arrain kontserbak, Gutarra Nafarroako ortuari kontserbak, Dorrea Gaztandegietako Idiazabal gaztiak, Kaiku Gran Cocina produktuak (Adriá, Argiñano, Arzak eta Subijananen bermeagaz); eta zelan ez, Patxi Renterianen buzkantza, txistorra eta txorizoak. Gure Abesbatzak abestu eta txistulariek jo eben eta antolatzaileentzat eguna sano arrakastatsua izan zuten, jendetza handia etorri zalako eta gure lurraldeko komunikabide ia guztiak egon ziralako; gero horren barri emon eben komunikabideek.



KIROLIK EZ EGITEA LAR JATEA BAINO KALTEGARRIAGOA DA

Argal egotea ez da nahikoa osasuntsu egoteko. Halantxe dino Txileko Unibertsitateko irakaslea dan Carlos Saavedrak. Haren esanetan, gitxi mogiduten diran pertsona meheek makalik paretako askoz aukera gehiago daukiez, kirola egin eta elikadura orekatua izan ohi dabean pisu handikoek baino. Dinoan lez, dietak eta ganerakoak kasurik gehienetan dirua gastetako atxakiak baino ez dira, gehienetan gorputzak lehengora jotzen daualako. Hamar urtean 10.000 lagunen bila-kaerea aztertu dabe txiletarrek, eta frogatu dabenez ariketa fisikoa eta nutrizinoa hobetuta osasun arloan lortzen diran emoitzak ikusgarriak dira. Izan be, gaixotasun kronikoen %75 gihar-ehunen kalidade eskasak eragindakoak izaten dirala ziurtatu dabe. Muskuluak sendotzeko erarik onena kirola egitea da, jakina. Halandaze, Saavedrak gomen-datzen dauan lez, astean 1.800 kilokaloria erretea da egokiena.



BILL GATESEK BERE DIRUEN %98 ITZI GURA DEUTSO GIZATERIARI

Halau esan dau Microsft enpresa erraldoiaren nagusiak, igazko abenduaren erdialdean egindako adierazpenetan. Aspaldian esan ei eban eta agindutakoa berretsi gura izan dau osterabe. Gatesen ondasunek 42.000 milioi euroko balioa daukie (7 bilioi pezeta), eta Interneteko eztabaida guneetako eritxiak ikusita inork gitxik sinistu deutso softwarearen erregeari. Emondako berbea beteko baleu, historia osoko ongilerik handiena bihurtuko litzateke Gates, eta lartxu da askoren ustez. Beste askoren eritxiz, amarruren bat edo beste eukiko dabe bere adierazpenek, daborduko Windows-agaz egindako iruzurrak kontaezinak izan diralako. Internauta askok dinoenez, ganera "informatikearen handi-mandiak kompetentziako enpresak erosi eta deuseztatu ostean milaka familiari eragin deutsezan kalteak ordaintzeko beste ez da izango".

GIZAKIEI TXIPAK JARTEA PROPOSATU DABE



Argi dago irailaren 11n gertatutako guztiz traumatikoa izan dana estatubatuarren kontzientzia kolektiboarentzako. Harrezkero zabaltzen dabilen eskizofrenia diru iturri bihurtu gura dabe batzuek, osterabe. Floridako Appliek Digital Solutions, esaterako, gizakiengan txertaturiko txipa patentatu barri dau, zoritxarrekoen bat gertatu ezkerre, antza, biktima identifikatzea errazago egiteko. Zorioneko txipa norberaren aldakan sartuko litzateke eta horretan eroalearen izen-abizenakaz batera euki dauzan gaixotasunak eta hurrenekoen telefonoak agertuko litzatekez.

HISTORIA ETA EUSKAL ERAKUSTOKIA ZABALIK BAIONAN


Joan dan bagilean publikoari zabaldu eta 30.000 bisitari batu ostean, modu ofizialean inauguratu da Bakionako Historia eta euskal erakustokia, 12 urteko beharren ostean. Baiona-ttipia auzoan, XVII. mendeko Dagourette etxean dago museoa. 100.000 artelan batzen dauz, horretarik 2.000 ikusi daitekez 4.000 metro karratuko galerian. Objektu etnografikoen ondoan artelan mendekideak be badagoz, esate baterako Basterretxea, Oteiza, Txillida eta Etxeberriaren lanak eta margoak. Inaugurazinoan Catherine Tasca Frantziako kultura ministroa izan zan. Memoria egoitza baino gehiago zientzia, historia, hezkuntza eta kultura tresnatzat jo eban erakustoki barria. Era berean, ministroak adierazo eban Bakionan berean artxibategi bat sortuko dala gaurko egunean euskal artxiboak Paben dagozalako.

EGOERA TXARRA DALA ETA, "TXOMIN" HERRIKO ETXEA BEHEAREN GANERA BOTA DA

Zezeilaren 20an "Txomin" herriko etxea behearen ganera bota zan, etxearen egoera eta kokapena bape egokiak ez zirala-ko. Izan be, eraikin hau urigintza-ko plagintzatik kanpo egon da errepide nagusiaren errebuelta arriskutsua artezteko amesa egon dalako. Ganera, etxearen egoera ez da bape ona izan; tei-latua txarto egon da, eta gelen egiturea zahartuta egoteaz ganera, ez da prestatuta egon gaur egungo beharrezanez erantzute-ko. Halandaze, hori guztiori ikusita, eraikina behearen ganera botatzea erabagi da. Ostean libre geratu dan lurra behar lez neurtu eta apur bat atzerago aprobetxamendu publikoko beste eraikin bat eregitea aurreikusita dago.



ERREKEA BIDERATZEKO OBRAK HURRENGO HILEAN AMAITUKO DIRA



Errekea bideratzeko eta zabalgotzeko obrak 2000ko irailaren 25ean hasi ziran eta apirilean amaituko dira. Errekearen ibarretako horma guztiak handitzeko obrak amaitu dira, errematatzen hasi dira eta hamendik gixira, barandilak ipini eta obrek kalte-tutako erreka-bazter bietako ibilbideak urbanizatzeko lanak hasiko dira.

Kanalizazio eta zabaltze obra horrerik esker, ubidearen funtzionamendu hidrauliko egokia eta erreka-hondoaren gogortasuna bermatuko da; holan, ez da uriol arriskurik izango eta ez da hondakinik pilatuko. Horretarako, ubideari itxura emoten deusien ohol metaliko batzuk ipini dira.

Errekearen hormen alboan dagozan eraikin batzuetan agertu diran arrakalei jagokenez, hauxe esan behar da: daborduko peritu batek arrakalok zergaitik agertu diran aztertuko dauala, eta enpresak obren ondorioz sortutako kalteak konpontzeko konpromisoa hartu dauala.

ESTANKOALDEAN BIRIBILGUNE BARRIA



Udaleko lan taldeak irailean ekin eutsen Estakoaldeko biribilgunea burutzeko beharrei. Biribilgune honetako zereginak bi izango dira: batetik, trafikoa antolatzea eta ibilgailuen abiadurea gitxitzea, eskola ondoko inguruan; eta, bestetik, inguru-nea edertzea eta urbanizatzea Mikel Etxearen aurrera Ibarretako espaloia luzatuz. Era berean, biribilgunearen barruan argiz hornitutako apaingarri metaliko ikusgarria ipinteko amesa dago, ingurua erakargarriago egiteko.

SAITUA INGURUKO OBRAK MARTXAN

Behin Armurua aldea saneamendu, gas eta zuntz optikoko zerbitzu osoaz hornitzeko obrak amaituta, horrelako obrak egiteari ekin jako Saitua aldean.

Obra horreek 4 hilabete-ko epean egitea aurreikusita dago. Beharrok egiteko, Aldundiaren Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailearen laguntzinoa eukiko dogu, beraren "Azpiegitura Hidraulikoak" programearen barruan.

Halandaze, Saitua aldea zuntz optikoa eukiko dauen bigarren auzoa izango da. Dana dala, esan beharra dago bardin jokatu dala herrian edozein azpiegitura mota ipini behar danean.

UDAL EGITUREA ANTOLATZEKO AZTERLANA LKS ENPRESEARI ADJUDIKATU JAKO

Azken hamar urteotan izan diran aldaketa sozial sakon, Bakiok orain bizi dauan indarbarritze prozesu eta garapen eta herritar kopuruaren gorakadearen ondorioz, udalaren beharrak eta ardurek be gora egin dabe, bai eta tramitazio kopuruak zein gure Udalak aurrera daroazan eta eskaintzen dauazan zerbitzuak be.

Horregaitik, udalbatzak beharrezkotzat jo dau udal egiturea antolatzeke azterlana enpresa bateri lehiaketa bitartez adjudikatzea. Zazpi enpresa aurkeztu dira lehiaketara eta Mondragon korporazioaren menpeko LKS enpreseari adjudikatu jako, horrelako beharretan dauken esperientziagaitik, aurkeztutako proiektuaren kalidadeagaitik eta azterlana burutzeko prezioagaitik.

Enpresa horrek honako beharrak egin behar izango dauz: administrazio prozesuak barriro zehaztu behar izango dauz, antolakuntza egiturea egokitu eta gobernu sistema barriro diseinatu behar izango dau eta beharrezkoak diran lanpostuak zehaztu behar izango dauz; ganera, aztertu behar izango da zein izango dan udal zerbitzu ezbardin-arten arteko koordinazioa eta jardunbiderako formula juridiko baten bideragarritasuna be. Azterlan horrerik esker, udal egitura osoa barriro moldatzeko proiektua ipini gura da martxan, herriak eta herritar guztiek daukezan beharrian barriari arin eta ondo erantzuteko.

ERREKO EGUNARI ESKER, ZUBIAUR ONDOKO TARTEA GARBI-GARBI

Urriaren 19an XI. "Erreka Eguna" izan zan; egun hori ia tradizino bat da gure herrian eta helburua hauxe da: gure txikiak jabetu daitezela inguru-mena errespetatzea eta jagotea zein garrantzitsua dan.

"Erreka Eguna" baino lehenago, gure umeek errekek zelan jagoten diran ikusi eben eskolan eta urriaren 19an ikasitakoa praktikan ipinteko aukerea euki eben. 2 eta 11 urte bitarteko 56 eskola-ume, irakasleak, gurasoen alkarteko ordezkari bat eta udaleko hainbat behargin ibili ziran Zubiaur aurretik doan erreka zatia garbitzen. Ur oinetakoak eta guanteak jantzi eta zakuak hartu eta gero, gure umeek lanari ekin eutsoren gogo handiz.



56 umeak errekan zehar sakabanatu ziran euren lana ahalik eta ondoen egiteko. Danetarikoa jaso eben: latak, botilak, plastikoak, soka zaharrak, aterkiak... dan-dana sartu eben zakuetan. 20 minutuz ekin eta ekin ibili ostean, helburua bete zan; gure erreka garbi egoan, ez egoan ezelango hondakin arrastorik.

Azkenean, sariak banandu ziran. Arropak aldatu eta gero, umeek Aldundiak bialdutako kamisetak jaso ebezen. Gero, pozik euren beharra egin ebela-eta, Udalak emondako ogitartekoak jan ebezen. Orain bakarrik gauza bat geratzen da, nagusiek be ume horreen adibidea kontuan hartu daiela.

MATRIKULAZINO EPEA ZABALIK GURE ESKOLAN

Zezeilaren 18tik martiaren 18ra bitartean umeak aurrematrikulatzeko epea zabalik egongo da. Urkitza ikastetxea gure herriko umeek parajeen daukien ikastetxea izateaz ganera, bertan era guztietako zerbitzuak eskaintzen dira, barbarako urte biko umeentzako gela berezia, informatika gela, ingeles zein musika eskolak eta psikomotrizitatea lantzeko behar-beharrezkoak diran dantza eta soinketa eskolak be. Era berean, gure ikastetxea profesional talde ezin egokiagoaz osotuta dago, esperientzia eta gaztetasuna uztartuz; aldi berean, gurasoek hartu daben konpromiso maila handiak hezkuntza plurala eta parte hartzailea bermatzen dau, beti be familiaren eremutik paraje. Eta hori guztiori, ganera, hurreneko errealitatetik abiatuta bideratzen da, gure ingurune eta herriagaz bat egiteko gizarte integrazinoa beren beregi bultzatuz. Halandaze, ez euki zalantzarik eta gure herriko ikastetxearen aldeko postua egin.

OHARRA!

**TXIRRITXOLA ETXERA HELTZEN EZ BAJATZU, ZATOZ ARRATSALDEZ
KULTUR ETXERA, ZURE HELBIDEA EMOTEN.
OSTERANTZEAN, BADAKIZU TXIRRITXOLA HERRIKO TABERNETAN, TURIS-
MO BULEGOAN EDOTA KULTUR ETXEAN ESKU-ESKURA DAUKAZUNA.**

GURE ARTEAN

NIKOLAS URIAGEREKA LASA

Osinaga (Uxina) baserrian 1905. urteko abenduaren 5ean jaio zan. 1925eko kintoa eta 1935. urtean ezkondua da. Orain, 95 urte daukaz eta Bakioko bizilagunik zaharrena da gure Nikolas.

TX.- Horrenbeste bostegaz zeure bizitzan, bota bostekoa, Nikolas. Holantxe agurtu genduan alkar Nikolas eta biok itsaso ganean daukan Bastei (Luzarraga Goikoa) baserri ederrean. Azaldu zure bizitzea azal-azaletik besterik ez bada be.

N.U.- Hamairu urte bete arte Hermanoetako eskolara ibili nintzan. Bete nebazanean, etxera, baserrian lagundutera joan behar izan neban. Urte bi inguru bertan egin nebazan. Mutiko kaskondotxua be banintzala eta gurasoeri lagundu behar jakela-eta, basobeharrak eta San Pelaioko bidea egiten, jo eta ke, beharrean ibili nintzan. Gero, soldadizkan Bartzelonan "Dedalo" hegazkinontzian hiru urte emon nebazan. Handik lizentziatu eta auzoko Mateo Bilbao merkanteko makinisteagaz barriro itsasora. Itsasoan nengoala, Bidegane bidea egin jen "Ganboa y Domingo" etxegileko ugazabearen mezua non hartuten dodan, Asturiasen ur-jausi bat egin behar zala-eta, beragaz joan behar nebala. 1935. urtean Katalina Ormaza neska polit eta lirainagaz, Basteiko etxekoandrea, ezkondu eta ordurik, hamen, Bastei baserrian bizi izan naz zoriontsu.

TX.- Bai, burua argi dozula, Nikolas!

N.U. - Buruan eta "errotan" ez dot faltarik, Jainkoari eskerrak. Gaztaroko eta antxinako gorabeherak, egun eta guzti esan neizuz. "Errotea", barriz, zer esanik be ez, jateko gogoa, kendu bakoa.



TX.- Non igaro zenduan gerratea?

N.U. - Bakiotik ez neban urten. Kortako satspilopean txokotxu bat eginda neukan. Egunez han eta gauez basoan.

TX.- Ez da gozo-gozoa izango satspilopeko habia, ezta?

N.U. - Ez, ez zan gozo-gozoa izan, baina bai kanposantukoa baino hobea.

TX. - Bazeunkan lurgintza handirik?

N.U. - Bakioko lurgintzea ez da berez handia, baina bai aberatsa. Lau behi, txahal batzuk, untxi, oilo eta holango batzuk etxerako eta zoezer salduteko be bageunkan. Soloetan patata, arto eta garia. Etxeak ekarretetik polito konponduten gintzan, goserik ez, behintzat. Garia eta artoa errotan eiho eta aurrera. Orduan ez egoan ez "behi zororik" ez "aftosarik" ez kolesterolik, gauza garbiak jaten genduzan-eta, bata bestea baino ederragoak.



TX.- Errotak aitatu dozuzan ezkerro, lehengo baten, eztabaida bat sortu zan gure artean eta nonork esan eban Nikolasek atarako gaituala zalantza horretatik. Zenbat errota dagoz Bakion?

N.U. - Jakingo ez dot, ba! Izen, ezizen eta guzti esango deusdaz. Bakion hamabi errota izan dira, lau San Pelaiion eta zortzi Basigon.

SAN PELAIOKOAK:

Urkitxi:	Zorrak pagau.
Ureta:	Aurten ez.
Azeretxoko Errota:	Doala beherantz.
Olabarri:	Ni hemen nago eta.

BASIGOKOAK:

Errotabarri:	Gu asko gara eta.
Bekoerrota:	Herri guztia neuretzat.
Telleria:	Jatako urak neuretzat.
Eitzaga:	Hemen siku dago eta.
Olatxu:	Brum, brum, brum.
Kurtzikene:	Txuli, txuli.
Goikolea:	Txispaz, txispaz.
Kakuene:	Dinbilin dan.

TX.- Bazkaltzeko ordua be bazala-eta, agur beroagaz ateragino lagundu euskun Nikolasek.

Jon Aingeru GOIKOETXEA

BERBALAPIKOA

(Bb: Bakioko berbea)

soldadizka= soldaduzka. (B.b.)

hegazkinontzi= hegazkinak eroaten dituan itsasontzia.

jen (dxen)= eban. (B.b.)

urjausi= argi-indarra egitekoa.

lurgintza= labrantza.

untxi= koneju.

gintzan (gintzen)= gintzazan, ginan. (B.b.)

zalantza= ezbai, duda.

Marta Txori

(1865-1946)

MARTA TXORI izeneko andra alkartea eratu da gure herrian. Andrak alkartu dira euren gauzak, ardurak eta arazoak eurek euretara gobernetako. Alkarte barri horri izenen bat imini behar eta MARTA TXORI izena aukeratu dabe, Marta Txori herrian herriko andra ezaguna izan zalako edo.

Baina nor izan zan Marta Txori? Zer daki-gu haren barri? Sasoi batetik aurrerakoak gomutauko dira ondo andra haren inguruko gorabeherakaz-eta. Marta Gaminde Argaluze izan zan izenez. 1865. urteko zezeilaren 23an jaio ziran Jauregizarran (Dxéurisarre) bera eta beraren ahizta bikotxa Margarita. Horrezaz ganera, neba bat eta ahizta bat gehiago euki jezan gure Martak.

Herrian ezagun-ezaguna izan zan, apala, behartsu eta apur bat bakana izan zalako. Izan leiteke, Marta Txori ezizena apaingarriak jantztea gogoko jelako hortik etortea. Gorputzez txiki, bizkorra eta zuhurra be bazan. Hagin asko falta jezan eta ez zan burutik ondo-ondo ibili, aurki. Buruzapi, lepo-oihal eta soineko gris jantzita ibiltan zan, aterkina beti aldean eroaten jela.

Prezetoriaren (Prestetóridxe) etxatzean bizitan zan, hantxe bakar-bakarrik. Bakiotarrak emoten eutsoenagaz ataraten jen bizimodua aurrera. Soloan zein bedarra ebagiten lagunduten jen han-horhemen herriko etxe askotan. Eleizpea garbituten jen. Bertako behearen ganetik batutako mistoakaz eta eleizako argimutiletan urtutako argizariagaz kandelak egiten jezan, gero herrian salduteko. Esku onekoa zan antza, ze "erretratu" antzekoak-eta pintetan jezan.

Jakiak-eta emoten eutsoezanakaine joaten zan egunean-egunean, etxerik etxe. Gero, etxera joandakoan, eguneroko otorduak egiteko. Gabonetan eta herriko jaietan, barriz, herritarrak etxera ekarten eutsoezan jateko eta edatekoak. Eta ez gitxi, gero!

Herriko gaztetxu zitalak, baina, okerkerietan egiteko itzelak egiten eutsoezan. Ernegau eragin arte. Inoz, mutilen batek ostuka musuren bat berari emon



eta bera, sutan, argirika hasten jakon: "Zantarra! Zantar hori" Halan eta guzti be, txantxetan ibiltea gustetan ei jakon. Sarritan, bidean gora eta bidean behera ibiltan zan hara-honaka, batzuetan burua artez, harro, besteetan, barriz, burua makurtuta dauala, beheari adi balego lez.

81 urtegaz hil zan Prezetorian, 1946. urteko bagilaren 11an, hil egin bizi izan zan eran, behartsu.

Iniaki MARTIARTU

BERBALAPIKOA

(Bb: Bakioko berbea)

- argimutil = kandelabro (Bb)
- aterkin = guardasol
- bakan = bitxi, ohiezlango.
- gomutau = akordau, gogoratu.
- jaki = jateko (Bb)
- jen (dxen) = eban (Bb)
- jezan (dxezan) = ebazan (Bb)
- lepo-oihal = lepoan jantziteko zapi handia.
- otordu = bazkalordu (Bb)
- Prezetoria (Prestetóridxe) = Etxe-Pinto ondoan egoan, gaur eguneko aparkalekuan.
- zital (sitxel) = zirikatzaile (Bb)

OHARRA: Artikulua idazteko zein argazkiak izteagaitik Sabin Uriartek eta Unai Artetxek emondako bihotzezko laguntzinoa benetan eskertu gura dogu lerrootatik. Marta Txoriren ganerako kontu gehiago batu doguzan arren be, beste inork beraren ganean zeozer gehiago esan edo aitatu gura badeusku, pozarren entzungo deutsogu.

Marta Txori Andra Alkartea

Interesgarri ikusi dogu oraintxu sortu dan Marta Txori alkartearen ganean zeozer gehiago jakitea. Euren batzar egun batean, itaunak bota, eta honeek izan dira batu doguzan erantzunak.

Zelan eta noz sortu da zuon alkartea?

Bakion andra alkarate bat sortzeko asmoa berez sortu zan Kultur Etxean emoten diran yoga eskoletan, eta gero, beste ikastaro batzuetara zabaldu zan. 2001eko irailaren 17an legezatu zan.

Nortzuek osotzen dozue?

Oraintxe bertan Bakioko 64 androk osotzen dogu. Hasikeran gitxi ginan baina apurka-apurka...

Partaideen adina dala eta, adin guztietako andra-neskak batzen dozuez?

Bai, adin guztietara zabalik dago. Izatez, gazteak eta amamak be badagoz.

Zein da zuon helburu nagusia?

Hainbat helburu dagoz: gauza barriak ikasteko beharra, jarduera batzuk aurrera eroan, geure eritxiak azaldu eta beste pertsona batzuek hartu-emonetan paratzeko aukerea, baita herriaren bizitza publikoari geure elkarpentxua egiteko gogoia be.

Zer moduko harrerea igarri dozue herrian?



Oso ona.

Zeintzuk dira epe laburrean antolatuko dozuezan ekitaldiak?

Hainbat berbaldi, tailer eta urte-kerak kultural prestatzen gabiliz.

Zein da zuentzako oztoporik larriena?

Oztopoak edozein alkaratek hasikeran eukiten dauzanan dira.

Partaide barriak izan gura dabenak, nora jo behar dabe?

Marta Txori Andra Alkartea, Kultur Etxean bertan batzartzen da.

BAKIOKO ABESBATZA VERSALLESen

Joan dan abenduan, Bakioko Abesbatzak Frantziarako bidea hartu eta Versalleseragino eroan ebazan gure herriko ahots, musika eta abestiak. Inmaculadaren zubia aprobetxatuz, lau egunetan ibili ginan Europako gune garrantzitsu horretan dakiguna erakusten.

Bisitaldi hau, Versalleseko "Choeur des petits chanteurs" abesbatzeari zor geuntson. Abesbatza hau mutilen 30 ahotsek osotzen dabe eta Jean Francois Frémont da beraren zuzendaria. Eurak, orain dala sei urte izan genduzan Bakion, Pedro Ereño bitartekaria zala, beraren seme bi abesbatza horretako kideak dira eta. Harrezkero, noz joango ibili gara, urtean-urtean, danontzat sasoi egoki bat topatu gurean. Eta azkenean, 2001. urtearen amaieran aurkitu dogu abagunea.

Abestu ez eze inguru hareek ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera ederra be izan genduan.


"Disneyland Paris" izan zan gure lehenengo bisita-lekua. Zenbatgura barre egin genduan geure buruak han dagozan tramankulu izugarrietan, gora eta behera, abiada bizian ikusi genduzanean.

Parisen be luzaro ibili ginan. Kaleetan zehar Notre Dameraino eta Sena ibaitik ikusten ziran inguru ederrez gozatzen. Versalleseko lorategi izugarrietatik be ibilaldi ederra egin genduan. Horretarako eta beste gauza askotarako, Pedro Ereño, beraren andra eta seme-alabak izan genduzan laguntzaile. Lerro honeen bitartez bihotzez eskertu gura deusegu gugaz izan daben adeitasuna eta eskaini deuskuen laguntza parebakoa.



Zapatuan, hilaren 8an, emon genduan kontzertua Versalleseko Notre Dame eleizan. Gure ekitaldia, Euskal Herriko konpositoreen eta herri abestiez osotu zan. Zati bitan banatu genduan emonaldia. Lehenengokoan tradizinozko abestiak eskaini geuntsezan versallestare. Bigarreanean, barriz, gaur egungoak. Eta bien bitartean Bakioko Txistu-bandaren musika ondo taituta entzuteko aukerea izan genduan guztiok.

Jendez ganezka izan zan eleizea eta pozik txalotu eben amaitukeran. Bidaiaren balantzea, beraz, ona da. Ezin hobea. Bakioko Abesbatzari esker, gure herria apur bat ezagunagoa da orain Europako inguruetan.



GABONETAKO JAIOTZA

Gehienok jakin ez arren, Bakion bizi dan Julian P. Abaurreak, aurtengo gabonetan, Bizkaiko Belenzaleen Alkarteak antolatutako lehiaketan, lehenengo saria irabazi dau. Lehiaketa honetan, etxeetan egindako jaiotzek hartzen dabe parte. Julian, holango lanen zalea da aspalditik, igaz be, bigarren saria lortu eban, eta aurtengo lana, bene-benetan guztiz polita eta txukuna da.

Argazkiak hemen agertu arren, irudi honeetan ezin dira detaile guztiak igarri. Hobe da Itxas-Ganera joan, eta egileari ikusteko baimena eskatu. Berak holangoetarako prest dagoala esan deusku, oso gustura ganera, erakusteko ilusinoagaz. Benetan merezi dau zuzenean ikustea. Julianek, ganera, musika berezia iminiko deusue, ur-jausia entzun, eta eguna eta gauaren arteko argi ezbardinak gozatu ahal izango dozuez. Berak egindako etxeak, etxeen arteko bidetxuak, biztanleak euren zereginetan, erregeak, jaiotza, animaliak, erreka eta landareak, aingerua artzainekaz... Ezetz ikusi dana minutu bitan!

Zorionak Julian eta sorte on datorren urterako.



GABONETAKO IPUIN LEHIAKETA

Aurtengo XIV. Ipuin Lehiaketan, hamazortzi partaide euki doguz. Sariak eta irabazleen izenak, Gabon Egunean emon ziran, pelotalekuan. Adinaren arabera banatuta, lehiaketa honetakoa idazleak eta ipuinen izenburuak honeetxek dira:

Lehenengo mailan, 7 urtetik 10era bitartean:

- Aritz Ares, "Oilar alfonbra saltzailea"
- Iker Gomez, "Katua katarroarekin"
- Janire Osa (irabazlea), "Atzazalak jaten zituen umetxoa"
- Kevin Gomez, "Javi eta bere aitona"
- Mireia Sasiain, "Nire lagunik magikoena"

Bigarren mailan, 11 urtetik 14ra:

- Beñat Elgezabal, "A ze gaua"
- Eider Gomez (sari berezia marrazkidun ipuin onenari), "Bat"
- Eztizen Angulo, "Nire bizitza tristea"
- Idoia Uriarte, "Susanaren ezbeharra"
- Ioritz Uriarte, "Txomin"
- Mikel Basterra, "Gizakiaren lagunak"
- Txaber Abio (irabazlea), "Gontzal surferoa"
- Yera Angulo, "Bizitzaren aldaketa"

Hirugarren mailan, 15 urtetik aurrera:

- Gotzone Uriarte, "Martiztar batenak"
- Hodei Urrutxua (irabazlea), "Mutiko baten abenturak eta bideak"
- Lainoa Bilbao, "Garaziren aldaketa gizartearen erruz"
- Lide Madariaga, "Zoriontsuak, besterik ez"
- Oihane Longarai, "Asier Estatu Batuetara"

"GONTZAL SURFEROA"

Bazen behin Gontzal izeneko mutiko bat. Gontzalek sei urte zituen, ilea hori kolorekoa eta begi handi-handi bi. Gontzali munduan gehien gustatzen zitzaiona, itsasoa zen. Hondartzara joan, jesarri eta denbora pasa olatuak nola apurtzen ziren bitsetan ikustea zen bere jolasik gustukoena. Txiki-txikitatik orduak ematen zituen bertan jesarrita.

Baina bere ametsa, surf egitea zen. Aspalditik hondartzan ikusten zituen mutil haien antzera surfa egitea gogoko zuen. Etxean ere, denek bazekiten Gontzalen ametsa hori zela, baina bere aitari ez zitzaion gustatzen arriskuegia iruditzen baitzitzaion.

Sarritan Gontzal, aita konbentzitu nahian, eztabaidan aritzen zen, baina azkenean aitak beti haserretuta eta Gontzalek negarrez bukatzen zuten.

Denborarekin Gontzal mutil kozkorra egin zen, hazi eta gizontxo bat ematen zuen. Itsasoko haize osasuntsuak mutil sendo eta bizkor bihurtu zuen.

Egun batean, hondartzan zegoela, haizeak olatu oso handiak altxatu zituen eta Gontzalek uretan erdi itota zegoen mutil bat ikusi zuen.

Pentsatu gabe, soinean zeraman txandala erantzi zuen eta uretara bota zen mutilari laguntzeko. Olatuen indarra oso handia zen eta Gontzalek bere indar guztiak erabili behar izan zituen mutila zegoen lekuraino heltzeko. Mutila besotik hartu eta lagundu zion ur gainetik burua atera eta arnasa hartzen.

Baina ordurako Gontzal oso nekatuta zegoen. Bere azken indarrak hartu eta mutilari uretatik ateratzen lagundu zion hareatzaraino heltzeko.

Hondartzan jende asko zegoen eta denek ikusi zuten Gontzalen balentria. Denek eskertu eta zoriondu zuten. Anbulantzia batek mutila ospitalera eraman zuen eta egun pare batzuetan osatu zen.

Gontzalen aitak hau guztia jakin zuenean, Gontzali zorionak eman eta surfa egiteko baimena eman zion, oso igerilari ona zela erakutsi zuelako eta arriskurik ez zuela izango ikusi baitzuen.

Txaber Abio Muruaga

OLENTZEROA 2001 EKO AMAIERAN

Abenduaren 24an, Guraso Alkartek irakurritakoa pelotalekuan:

GABON! Beste urtebete joan jaku eta gure Olentzero huts egin barik etorri da umeakana betiko lez, baita gu be ilusino barriakaz, 2002. urteak euroaz aparte zer ekarri ete deuskun begira.

Egia esan, munduari begirada bat botata, aurrean daukagun panoramea ez da atseginena. Guztiok gabiltza aldrebestuta gure bidea topatu ezinik. Horregaitik Guraso Alkartearen eskaerea datorren urterako hauxe izango litzateke:

Euskal Herriak bere lekua topatu daiala eta gerra guztiak bertan behera geratu daitezala. Gaur goraintziak gugaz ez dagozenei, itzi egin gaituelako edota behartuta dagozalako etxetik kanpo egoten, bai eta gure umei be, eurek gure geroa diralako. Ilusinoak ez daiala inoz euren barrutik alde egin eta eskatu! Olentzero erregaluz beteta dator eta.



OLENTZEROA 2001 EKO AMAIERAN



OLENTZEROA 2001 EKO AMAIERAN



ZEMENDIAREN 24an "SOINU ETA PANDERO JOLEEN EGUNA" OSPATU ZAN, FERMIN BILBAOK EGINDAKO BEHARRA OMENTZEKO

Aurreko zemendiaren 24an Gaueka alkarteak antolatu eta udalak lagunduta, "Soinu eta Pandero Joleen Eguna" ospatu zan. Halan, goizez kalejira bat euki genduan herrian eta horrerri esker akordeoi diatonikoaren doinu gozoak entzun ahal izan genduzan herritik zehar. Geroago, eguerdiko ordu bi eta erdietan, herri bazkaria izan zan probalekuan; bertan 100 pertsonak hartu eben parte eta soinulari ospetsuen jaialdiagaz gozatu ahal izan zan; izan be, jai horretan Laja eta Landakanda, Epelde eta Larrañaga, Epelalde eta Etxeberritxo, Roberto eta Kepa, Idoia eta Izaskun bikoteek jo eben, bai eta Bakio zein Mungiako ikasleek be.

Ospakizun honen bitartez omendu gura izan dira Fermín Bilbaok urte askotan barrena gazteen artean soinua bultzatzeko egindako beharra eta ahaleginak. Ez da harritzekoa, beraz, ekitaldi honetan parte hartu eben musikariek dogan jotea eta akordeoi diatonikoaren munduko bikote ospetsuak izatea.



TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozuentzako salneurri barriak. Salneurriok 2002ko urtarriletik aurrera dagoz indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkeron, deitu beti arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94 619 33 69.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale2
8rena (125 x 85)	73	54	36
16rena (87 x 66)	57	36	24
32rena (66 x 40)	36	24	18

GURASO ETA UMEAK KONTU KONTARI

Urriko "Guraso eta umeak kontu kontari" egun biko tailerrean Antton Irusta euki genduan irakasle. Lehenengo egunean Anttonek erakutsi euskun zein dan ipuinen eragina umeen heziketan eta bilakaeran. Bigarren egunean, ipuinak amaitu eta hasteko esaldiak ikasi ostean, Irustak ekarritako naipe berezi batzuen bitartez bai nagusiek bai umeek ipuin bat asmatzeko aukerea euki eben. Nagusiek kostata baina gaztetxuek arin sortu eben istorio bikain bat.

Hona hemen berak Euskal Folkloretik batutako ipuin amaierak, ea dakizuzen zelan jarraitzen daben:

Hala bazan ezpazan, Bakioko plazan...
Egia, egia, ohe azpian...
Egia bada sakelara sar. Guzorra bada ez...

Eta ipuinak kontatu eta maitatzeko hainbat gomendio:

- Ipuina kontatzailearen gustukoa izatea, osterantzean "magia" galdu egiten da.
- Aldez aurretik apur bat prestatu egin behar da, buruz ondo ikasteko.
- Keinuak, begiak, eskuak... dana erabili behar da ipuin bat kontatzeko.
- Ipuin motak aldatu behar dira.

Amaitu baino lehen, gorago aitaturiko esaldien bigarren zatia.

- ...Bakioko plazan, saguzarrak dantzan.
- ...ohe azpian, txarria.
- ...Guzorra bada ez golkoan sar.



LIBURUAK

SORGINEN URREZKO MAINDIREA

Joxe Arratibelek aurkeztutako kontu zaharrak. Pasadizoak, ohiturak etab... Aralargo artzaina eta sugearen istorioa, kantak eta koplak dira, besteak beste, ipuin bilduma honetan agertzen diran pasadizoak.



A ZE GAUPASA

Bizkaieraz idatzitako gaur egungo gazte koardila batek pasatutako abenturak udako gau jai batean.

M. A. Mintegi Larraza

A zer gaupasa!



Quin

IBAIZABAL

URTUBIKO DAMA

Ipuin labur honetan, jauntxuen arteko liskarren erdian gertatzen den amodio istorio bat agertzen jaku. Egileak Pio Barojaren antxinako erromantzeen ikutua emon deitso liburu honeri.

Pio Baroja



NIRE KULEROAK

Maxeri argazki makina oparitu eutsoen aspal-dian. Egunero dabil bere makina aldean enkua-dratze ederra noz sortuko dan begira. Anjel Lertxundik idatzitako gazte baten pasadizoa da hau. Aitite Txominen xelebrekeriak eta oilotegia dira beste protagonistak. Istoriotxu simple baten bidez, Lertxundik erakusten deuskuz gaur egungo arazo batzuk, langabezia, nagusien arazo menta-

lak, etxeko hartu-emo-nak, Antton Olariagaren irudi moder-no eta efek-ti b o e k lagundurik.

NIRE KULEROAK

Anjel Lertxundi & Antton Olariaga



SUKALDARITZA

Mendikoi eta Bakioko Udalak antolatuta, joan dan urtarrilean Sukaldaritza Tradizionala izeneko ikastaroa hasi zan. Zoritzarrez leku gitxi egoala eta, hainbat pertsona leku barik lotu zan ikastaro honetan. Dana dala, hementxe daukazue ikastaro honetan landutako errezeta bi:

ARROZ ESNEA

Osagaiak:

- Litro l esne
- 75 gr. arroza
- 200 gr. azukre
- Kanela palu bat
- Limoi erdiaren azala
- Kanelaren hautsa

Surtan imini esnea, limoia eta kanela. Egosten hasten danean, bota arroza eta eragin.

Su epeletan itziko dogu apurka-apurka egin daiten, eta noizean behin eragingo deutzagu, arroza egin arte. Orduan, azukrea botako dogu, apur baten itziko dogu barrero irikiten, azukrea urtu arte; ostean, surtetik kenduko dogu.

Itzi hotzitzen, eta gero kanelaren hautsa bota ganetik.

TXOKOLATEZKO "MOUSSE"

Osagaiak:

- 50gr. glass azukre
- 4 goringo
- 4 zuringo
- Estaltzeko 250 gr. txokolate
- 250 gr. esnegain, erdi irabiatuta
- 100 ml. esne
- Brandy

Txokolatea eta azukrea esnetan urtu, mari-bainutan, gehitu gero goringoa eta nahastu, bota brandya eta surtetik kendu ostean, bota aurretik irabiatutako zuringoak eta erdi irabiatutako esnegaina.

BARREGAIK

JATETXEAN

- Zerbitzaria! Ekarri eistazuz perretxikoak, mesedez.

- 1.800 pezeta emon behar deustazuz, jauna.

- Jan aurretik ordaindu behar dot, ala?

- Perretxikoak dirala eta, badakizu..., ez dago ziurtasunik.

ABADEAREN NEGARRAK

Pariseko abade batek haxe esan eban mezatan behinola baten:

- Domeketan pulpilotik eleiztarrak eta euren andrak horren ondo jantzita ikusi ta neure buruari haxe dinotsot: "Non dagoz, bada, gure parroko txiroak?"

Baina mezea amaitu ta dirua zenbatu ostean, orduan nire buruari beste hau itaunduten deutzot: "Non dagoz, bada, gure parroko aberatsak?"

UMEEN ITAUNAK

- Aita, zeuk adarrrik erabilten dozu?

- Ez dakit, seine. Aspaldion buruan hamai-ka gauza darabilt.

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Ahor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun.

OHARRA

Era bitara dakarguz, esaterako, zelan idatzi behar dan: "hareek / haiek"
Bakion zelan esaten dan: "árek / áiek"

ERAKUSLEAK - 1

Erakusle arruntak dira "hau", "hori", "ha" eta beroneen pluralak "honeek", "horreek" eta "hareek", dan-danak ZER kasuan edo, beste era batera esanda, NOMINATIBO kasuan. Erakusleok osterantzeko kasu guztietan be deklinetan dira.

Erakusleak izenaren (eta adjektiboaren) atzean iminten dira:

Nik liburu (gorri) **HORI** ekarri dot.

Batzuetan izena (eta adjektiboa) isilpean egon eta erakuslea bakarrik lotuten da agirian:

Nik **HORI** ekarri dot.

Bakioko erakusleak agertuko deusueguz bertan. Bizkaierazkoak dira. Gaur egun, herritar batzuk batuarenakaz nahaste-borrasteen erabilten dabez. Gure eritxian jokera hori sano motza da. Halan bada, herrikoak argigarri ekarri doguz bertora, gorde, jagon eta ondo erabili daiguzan.

Esan behar be, agozko berbetearen azentuak joko handia daukala erakusleak ondo esan eta ulertuteko orduan, hau da, singular eta pluralaren artean zein dan zein jakiteko.

(SIN.: singularra - PLU.: plurala)

Erakusleetan bizidunak eta bizibakoak dagoz. Hurrengo honetan bizidunak agertuko deusueguz:

NOR? (NOR?)

SIN.:	hau (au)	hori (orí)	ha (a)
PLU.:	honeek (ónék)	horreek (órrek)	hareek/haiek (árek/áiek)

NORK? (NOK?)

SIN.:	honek (onék)	horrek (orrék)	harek/hak (arék/ak)
PLU.:	honeek (ónék)	horrek (órrek)	hareek/haiek (árek/áiek)

NORI? (NORI?)

SIN.:	honeri (onéri)	horreri (orréri)	hareri (aréri)
PLU.:	honeeri (óneri)	horreeri (órreeri)	hareeri/haieri (áreeri/áieri)

NOREN? (NON?)

SIN.:	honen (onén)	horren (orrén)	haren (arén)
PLU.:	honeen (ónen)	horreen (órren)	hareen/haien (áren/áien)

NOGAZ? (NOGAS?)

SIN.:	honegaz (onégas)	horregaz (orrégas)	haregaz/hagaz (arégas/ágas)
PLU.:	honeekaz (ónekas)	horreekaz (órrekas)	hareekaz/haiekaz (órekas/áiekas)

NORENZAKO? (NONTZAKO?)

SIN.:	honentzako (onéntzako)	horrentzako (orréntzako)	harentzako (aréntzako)
PLU.:	honeentzako (ónentzako)	horreentzako (órrentzako)	hareentzako/haientzako (árentzako/áientzako)

NOGAINE? (NOIÑE?)

SIN.:	honegaine (onéiñe)	horregaine (orréiñe)	haregaine (aréiñe)
PLU.:	honeekaine (ónekaiñe)	horreekaine (órrekaiñe)	hareekaine/haiekaine (árekaiñe/áiekaiñe)

NOGAIK? (NOGAIKIK?)

SIN.:	honegaitik (onégaitik)	horregaitik (orrégaitik)	haregaitik/hagaitik (arégaitik/ágaitik)
PLU.:	honeekaitik (ónekaitik)	horreekaitik (órrekaitik)	hareekaitik/haiekaitik (árekaitik/áiekaitik)

NOGAN? (NOGAN?)

SIN.:	honegan (onégan)*	horregan (orrégan)*	haregan/hagan (arégan/ágan)*
PLU.:	honeekan (ónekan)*	horreekan (órrekan)*	hareekan/haiekan (árekan/áiekan)*

NOGANDIK? (NOGANDIK?)

SIN.:	honegandik (onégandik)*	horregandik (orrégandik)*	haregandik/hagandik (arégandik/ágandik)*
PLU.:	honeekandik (ónekandik)*	horreekandik (órrekandik)*	hareekandik/haiekandik (árekandik/áiekandik)*

OHARRA: * Gaur egun, izartxua dauken erak ez dira entzuten herritarren agoetan, galdutzat jo leitekez berbeta bizian. Herritarrek ez dauke, baina, bape arazorik eurak entzunkeran ondo be ondo ulertuteko, berbarako, eleizan abadeak darabilzanean.

EZETZ JAKIN!



7 ezbardintasun

*Bi marrazki honeetan
hiru gauza
bardin-bardinak dira.
Zeintzuk?*

atzera begira



Armintzako bidea zati bitan ei zan. Lehenengo zatia, Goitisologinokoa, gerra aurretik hasi eta 1936an, apur gora behera, amaitu zan. Bigarrena urte batzuk beluago izan zan. Bigarren zati hori, iturri onetik jakin izan dogunez, 1967ko udagoiengan hasi zan, eta ha amaitu arte ia urte bi eta erdi joan ziran. Halan bada, 1969ko Gabonetarako amaitu zan, aurki.

Goiko argazkian (1970ekoa) doguz, bada, sei morrosko Armintzako bide barrian, Arrilabane ondo-ko burre-burrean, otzaratxua eta guzti. Otzarea beteta, jateko eta edateko. Hoba ez! Antza, bidea amaitu barri egoala eta, Armintzan bazkaria jateko asmoagaz urten ei eben herritik. Baina...!

Ezkerretatik hasita eta eskoatara hoeetxek doguz:

Pedro Uriagereka (UGALDE - Ugeldé) - Eusebio Garai (JAUREGIZARRA ezkondata - Dxéurisarre) - Raimundo Barturen (ZAITUA BEAZKOA - Biósko) - Félix Rojo (Bilbokoa) - Juan Ibinaga (UGARTE - Ugérte) - Gregorio Ugalde (URIARTE BARRI - Údxerte)

Argazkia: Raimundo Barturen ek itzita